



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 9a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/ITP-00008. Interpelazioa, etxerik gabeko pertsonen problemari aurre egiteko balizko urratsei buruzkoa. Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak egin du (3. or.).
- 11-24/ITP-00009. Interpelazioa, ustelkeriaren aurkako borrokaren alorreko politika orokorrari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00122. Galdera, garraioaren Hiriko hondakin-plantari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00123. Galdera, Nafarroako sektore ekologikoaren bilakaerari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00124. Galdera, ILGTBIfobiarik gabeko Udalerrien Sareari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00126. Galdera, egoera erregularizatugabeen dauden pertsonen profesionaltasun-ziurtagiria eskura edukitzeari buruzkoa. Javier Arza Porrás jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00127. Galdera, gazteriarentzako programak garatzeko toki-entitateei emanen zaizkien dirulaguntzei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00128. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00129. Galdera, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00130. Galdera, ozonoak Nafarroan kutsatutako airearen kalitatea hobetzeko planari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).

- 11-24/POR-00131. Galdera, iraupen luzeko langabetuendako lan aukerak sortzeko Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen neurriei buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00132. Galdera, Dermatologiako interkontsulta ez-presentzialei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00133. Galdera, Leitzako oinarritzko osasun eskualdeko pediatriako arretari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00134. Galdera, Nafarroan gazteen langabezia igotzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00135. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00136. Galdera, Teknoadineko Landalab proiektuari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00137. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea lizitzatzeko aurreikusten den datari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00138. Galdera, 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onesteko akordioko “Enpresa-eredu berria” izeneko apartatuari buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00139. Galdera, FEADER-Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren bidez finantzatzeko proiektuei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00140. Galdera, Nafarroako ekintzaitzeta sistemaren balorazioari eta III. Ekintzaitzeta Plana abiarazteari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00141. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestaren emaitzari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00142. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00143. Galdera, Liderren Sareari eta Nafarroako kirol arloan duen inpaktuari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/POR-00144. Galdera, Aste Santuan Nafarroan izandako bisitarien eta okupazio turistikoaren gaineko datuei buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/POR-00145. Galdera, intereseko kultur proiektuak egite aldera Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak dituen laguntzei buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/POR-00146. Galdera, Foruzaingoaren jarduketei buruzkoa, prebenitzeko eta, kasua bada, jarduteko muturreko indarkeriarekin edo pornografiarekin lotutako sare edo whatsapp taldeen hedapenen kasuetan. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (19. or.).
- 11-24/POR-00147. Galdera, familia-esparruko tratu txarren emaiendako eta sexu erasotzaileendako Programa terapeutikoari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (20. or.).
- 11-24/POR-00148. Galdera, Nafarroako Oinarritzko Osasun Laguntzako zentroetako irisgarritasun arazoei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (20. or.).
- 11-24/POR-00150. Galdera, Abiadura Handiko Trenari buruzkoa. María teresa nosti izquierdo andreak egin du (21. or.).
- 11-24/POR-00151. Galdera, amnistiari buruzko azalpen faltari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (21. or.).
- 11-24/POR-00152. Galdera, prestazio handiko trenaren obren garapenari buruzkoa. Ramón Alzórriz jaunak egin du (22. or.).
- 11-24/POR-00153. Galdera, Estatuan 2024rako aurrekontu orokorrik ez izateak Nafarroarentzat izanen dituen ondorioei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (22. or.).
- 11-24/POR-00154. Galdera, Elikatearen legeak Nafarroan duen aplikazioari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (24. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00008. Interpelazioa, etxerik gabeko pertsonen problemari aurre egiteko balizko urratsei buruzkoa

VOX NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko interpelazioa, etxerik gabeko pertsonen problemari aurre egiteko balizko urratsei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran xedatzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun eta Nafarroako Gorteetako kide María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, 2024ko apirilaren 11ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Euskal Autonomia Erkidegoaren atzetik, Nafarroa da etxerik gabeko pertsona gehien daukan erkidegoa. Egoera horrek eragina du haien gutxieneko bizi-baldintza materialetan eta pertsona horien duintasunean. Hori dela eta,

Eskubide Sozialetako kontseilariarentzako interpelazioa eskatzen du, Nafarroako Foru Komunitatean arazo larri-larri horri aurre egiteko balia litezkeen ekintzei buruz.

Iruñean, 2024ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/ITP-00009. Interpelazioa, ustelkeriaren aurkako borrokaren alorreko politika orokorrari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako interpelazioa, ustelkeriaren aurkako borrokaren alorreko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkura baten xedatzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean eta Administrazioaren arduradunek baliabide publikoei emandako erabilerarekin lotutako gertakariak ikusita,

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazio hau aurkezten du, ustelkeriaren aurkako borrokaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00122. Galdera, Garraioaren Hiriko hondakin-plantari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Garraioaren Hiriko hondakin-plantari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneke eta Ingurumeneke kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Garraioaren Hiriko hondakin-planta dela-eta Iruñerriko Mankomunitateak eta Noaingo Udalak sinatu duten akordioari buruz?

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-24/POR-00123. Galdera, Nafarroako sektore ekologikoaren bilakaerari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Nafarroako sektore ekologikoaren bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

NNPEK-Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseiluak orain dela gutxi argitaratu zuen Nafarroako sektore ekologikoaren dosierra.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroako sektore ekologikoaren garapenaren gaineko datuei buruz?

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-24/POR-00124. Galdera, ILGTBIfobiarik gabeko Udalerrien Sareari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, LGTBIfobiarik gabeko Udalerrien Sareari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko legegintzaldian, "LGTBIfobiarik gabeko Udalerrien Sarea" izeneko ekimena jarri zuen abian Nafarroako Gobernuak, sexu- eta genero-aniztasunaren alde lan eginen duten udalerrien sarea sortzeko xedez.

Nafarroako Gobernuak zer ari da egiten tokientitateek sare horrekin bat egin dezaten?

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/POR-00126. Galdera, egoera erregularizatugabeen dauden pertsonen profesionaltasun-ziurtagiria eskura edukitzeari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, egoera erregularizatugabeen dauden pertsonen profesionaltasun-ziurtagiria eskura edukitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrásen,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

2/2023 Errege Lege-dekretuak xedatzen du Gizarte Segurantzaren sisteman sartuko direla prestakuntza-programetan prestakuntza-praktikak egiten dituzten ikasleak. Bizileku-baimena duten pertsonak soilik sar daitezke Gizarte Segurantzari. Hortaz, egoera erregularizatugabeen dauden migratzaileek blokeaturik dute hezkuntzarako sarbidea eta, bereziki, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko bidea, laneratzeko hain garrantzitsuak direnak.

Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarriko ditu bermatzeko egoera erregularizatugabeen dauden migratzaileek profesionaltasun-ziurtagiriak lortu ahal izatea?

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/POR-00127. Galdera, gazteriarentzako programak garatzeko toki-entitateei emanen zaizkien dirulaguntzei buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, gazteriarentzako programak garatzeko toki-entitateei emanen zaizkien dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gazteriarentzako programak garatzeko dirulaguntzen bidez laguntzen die Nafarroako Gobernuak toki-entitateei.

Gazteriarentzako programak garatzeko dirulaguntzek zer berritasun dakarte 2024an toki-entitatei dagokienez?

Iruñean, 2024ko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/POR-00128. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak, egun landa eremuak dituen beharri-zanei erantzute aldera?

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/POR-00129. Galdera, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra/Zurekin Nafarroa alderdiek, 2023-2027 legegintzaldirako, "Nafarroako Gobernu progresista esta pluralerako Akordio programatikoa" dokumentua adostu zuten. Hizkuntza politikari dagokionez, honako hau jaso zen 12.1 atalean: "Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea adostasun-arau gisa mantentzea, eta, hala bada-gokio, garapen-arau gisa ere bai. Arau hori aldatu ahalko da aurreko paragrafoan azaldutako printzipioen arabera, betiere Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari Buruzko Lege Organikoa (LORAFNA) horri buruz xedatutakoa errespetatuz. Foru Legearen garapena, hala badagokio, Nafarroako errealitate soziolinguistiko desberdinak islatzen dituen prozesu parte-hartzaile baten bidez egingo litzateke".

Zer asmo du Nafarroako Gobernuak 18/1986 Foru Legea garatzeko eta aldatzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00130. Galdera, ozonoak Nafarroan kutsatutako airearen kalitatea hobetzeko planari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, ozonoak Nafarroan kutsatutako airearen kalitatea hobetzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Ozonoak Nafarroan kutsatutako airearen kalitatea hobetzeko plana onetsi du: Zergatik onetsi da halako atzerapenarekin eta zer neurri berri dakar aurreko planen aldean?

Iruñean, 2024ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-24/POR-00131. Galdera, iraupen luzeko langabetuendako enplegu-aukerak sortzeko Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen neurriei buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, iraupen luzeko langabetuendako enplegu-aukerak sortzeko Nafarroako Gobernuak abiaraziko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

TEXTO DE LA PREGUNTA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikitako Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ahoz erantzun dezan: Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarriko ditu iraupen luzeko langabeendako enplegu-aukerak sortzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/POR-00132. Galdera, Dermatologiako interkontsulta ez-presentzialei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Dermatologiako interkontsulta ez-presentzialei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzailetzak Osasun Batzordean informatu zigunez, bultzatu egingen dira dermatologiako interkontsulta ez-presentzialak.

Horrek esan nahi al du oinarrizko osasunlaguntzako sendagileak ezin izanen dituela bidali bere pazienteak dermatologiako kontsulta presentzialera, baldin eta hori egitea egokia dela uste badu, interkontsulta ez-presentziala aldeztu aurretik eskatu gabe?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00133. Galdera, Leitzako oinarrizko osasun eskualdeko pediatriako arretari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Leitzako oinarrizko osasun eskualdeko pediatriako arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan apirilaren 11ko Osoko Bilkuran:

Leitzako oinarrizko osasun eskualdean, non pediatria-adina duten 596 pertsona baitaude, hila-beteak daramatzate gizatalde horrendako osasun-laguntza emateko medikuntzako profesionalik gabe.

Udalaren ordezkariak alternatiba bat proposatu zuten konponbide iraunkor bat emateko eta, halatan, haur eta gazte horiei pediatriako zerbitzu hori bermatu ahal izateko. Zoritxarrez, Osasun Departamentua ez da gauza izaten ari espezialista-plaza hori betetzeko, eta horrek eragozpen ugari sortzen dizkie osasun-laguntza hori behar dutenei, asko hobetu behar den pediatriako laguntza utziz.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako galdera hau egiten du:

– Osasun Departamentua eta/edo NOZ-Osasunbidea zer ekimen ari da hartzen pediatriako zerbitzua bermatzeko Leitzako oinarrizko osasun eskualdeko, Iruñeraino joan behar izatearen arazoa ekiditeko? Zer epetan ezarriko ditu ekimenok?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

11-24/POR-00134. Galdera, Nafarroan gazteen langabezia igotzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroan gazteen langabezia igotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gazteen langabeziak zergatik egiten du etenik gabe gora Nafarroan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/POR-00135. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestaren araberako emaitza onak ikusita, hobetu daitezkeen arloetatik zeinetan jarraitu beharko litzateke jartzen azpimarra?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00136. Galdera, Teknoadineko Landalab proiektuari buruzkoa*MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, Teknoadineko Landalab proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Teknoadineko Landalab proiektuaren helburua da gogoz kontrako bakardadeak dakartzan arriskuak murriztea Nafarroako Foru Komunitateko landa-eremuetako zaharren artean.

Nola uztartuko dira berrikuntza teknologikoa eta erkidego-zaintza tradizionalako dinamikak?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: María Olga Chueca Chueca

11-24/POR-00137. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea lizitatzeko aurreikusten den datari buruzkoa*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea lizitatzeko aurreikusten den datari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer data aurreikusten duzu Nafarroako Ubidearen bigarren fasea lizitatzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/POR-00138. Galdera, 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onesteko akordioko “Enpresa-eredu berria” ize-neko apartatuari buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, 2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onesteko akordioko “Enpresa-eredu berria” izeneko apartatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-

ko Ana Elizalde Urmeneta andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2024rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onesteko PSNk eta EH Bilduk lortutako akordioan Enpresa Eredu Berria ize-neko atal bat dago. Atal horretan, dirulaguntza publikoei buruzko araudia aldatzea proposatzen da, laguntza horiek enpresei emateko irizpideak aldatzeko.

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zer irizpide baliatuko du eta zer irizpide kenduko du araudi hori aldatzeko eta PSNren eta EH Bilduren arteko akordioa betetzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-24/POR-00139. Galdera, FEADER-Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez finantzatutako proiektuei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, FEADER-Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez finantzatutako proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Europako funtsak direla-eta egon ohi den datu-dantza ikusita, zein da FEADER-Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez finantzatutako proiektuen zenbatekoa, aukeratutako programak eta betetze-maila?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-24/POR-00140. Galdera, Nafarroako ekintzailtza sistemaren balorazioari eta III. Ekintzailtza Plana abiarazteari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Nafarroako ekintzailtza sistemaren balorazioari eta III. Ekintzailtza Plana abiarazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak apirilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ekintzailtza funtsezkoa da, zalantzarik gabe, Nafarroa bezalako industria-ekosistema baten

engranajerako; izan ere, gure barne produktu gordinaren % 30 baino gehiago egiten du industriak.

Europako Batzordeak berak hori bera jarri zuen balioan 2020an, Nafarroa Europako Eskualde Ekintzailea dela adierazi baitzuen. Sari hori Nafarroako Gobernuaren lanaren aitortza bat izan zen, ekintzailtza-sistema baten oinarriak ezartzeko, etorkizunerako plana balioesteko eta eskualdeko eragileek plana koordinatzeko orduan.

2021etik 2024ra bitarteko III. Ekintzailtza Planaren azken urtean sartuta gaudenez, eta nahiz eta oraindik zenbait hilabete falta den plana bukatzeko eta, hortaz, horren balorazioa egiteko, uste dugu funtsezkoa dela horren gaineko zenbait datu ezagutzea.

Hori dela-eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari galdetzen diogu ea zer balorazio egiten duen gure erkidegoan ezarritako ekintzailtza-sistemari dagokionez eta ea zer datu aurreratzen ahal digun, III. Ekintzailtza Plana ezarri zenetik hona.

Iruñean, 2024ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/POR-00141. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestaren emaitzari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako gaurkotetasun handiko galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestaren emaitzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak apirilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Osteguna argitaratu da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Sistemak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkesta. Zure departamentuak zer balorazio egiten du inkesta horren emaitzak direla-eta?

Iruñean, 2024ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/POR-00142. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du Osasuneko kontseilariak osoko bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkesta ikusita, Gobernuak zer neurri hartuko du irisgarritasuna hobetzeko eta sendagilearekiko hitzordu bat lortzea errazteko, jakinik prozesu horren balorazioa 10etik 6,8koa dela?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/POR-00143. Galdera, Liderren Sareari eta hark Nafarroako kirol arloan duen inpaktuari buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Liderren Sareari eta hark Nafarroako kirol arloan duen inpaktuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak, Espainiako Kirol Elkartearekin batera, emakumeen kirol arloko buruzagitzari buruzko prestakuntza sustatu du, beste ekintza batzuen ildotik, hala nola kirol federazioetako hauteskunde-prozesuak arautzen dituen foru agindua.

Kultura, Kirol eta Turismok Departamentuak zer balorazio egiten du Liderren Sareari eta hark Nafarroako kirol arloan duen eraginari buruz?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/POR-00144. Galdera, Aste Santuan Nafarroan izandako bisitarien eta okupazio turistikoaren gaineko datuei buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2023an artatutako herritarrei egindako gogobetetasun inkestari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreikuspenen arabera, Aste Santuko jai egunetan ehuneko 75eko okupazio turistikoa espero zen Nafarroan, autonomia-erkidegoen artean bigarren onena.

Zer balorazio egiten du departamentuak Nafarroan Aste Santuan izandako bisitarien eta okupazio turistikoari buruzko datuez?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/POR-00145. Galdera, intereseko kultur proiektuak egite aldera Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak dituen laguntzei buruzkoa

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, intereseko kultur proiektuak egite aldera Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak dituen laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Obanosko Misterioa bezalako ikuskizunak tokitotasuna gaintzen duten kultur proposamenak dira, kulturgintza eta elkartegintza sinergiak ehuntzeko aukera ematen dutenak, gure lurraldea sustatze aldera. Baina ekimen horiek gaitasun ekonomikoa behar dute gauzatu ahal izateko.

Kultura, Kirol eta Turismoko Departamentuak zer laguntza ematen ditu intereseko kultur proiektuak egiteko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/POR-00146. Galdera, Foruzaingoaren jarduketei buruzkoa, prebenitzeko eta, kasua bada, jarduteko muturreko indarkeriarekin edo pornografiarekin lotutako sare edo whatsapp taldeen hedapenen kasuetan

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Foruzaingoaren jarduketei buruzkoa, prebenitzeko eta, kasua bada, jarduteko muturreko indarkeriarekin edo pornografiarekin lotutako sare edo whatsapp taldeen hedapenen kasuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zenbait ikerketetan jasotzen denez, familien, hezitzaileen eta erakundeen kezka nagusienetako bat da teknologia berrien, sare sozialen eta, hedaturaz, harremanetarako teknologien erabilera osasungarria.

Zer jarduera egiten ditu Foruzaingoak muturreko indarkeriarekin edo pornografiarekin loturiko sareetako edo Whatsapp bidezko zabalkunde-kasuak prebenitzeko edo, kasua bada, horietan esku hartzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: María Aranzazu Biurrun Urpegui

11-24/POR-00147. Galdera, familia-esparruko tratu txarren emaileendako eta sexu erasotzaileendako Programa terapeutikoari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, familia-esparruko tratu txarren emaileendako eta sexu erasotzaileendako Programa terapeutikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Justiziako Gizarte Zerbitzuak, Zigorren eta Ordezko Neurrien Kudeaketarako Zerbitzuarekin eta espetxeko tratamendu-batzarrarekin koordinatuta, familia-esparruko tratu txarren emaileendako eta sexu erasotzaileendako programa terapeutikoa gauzatzen du Psikologia Juridiko eta Auzitegi-koaren Institutuaren bidez.

Zein da programa-betetzearen balantzea 2023an?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: María Aranzazu Biurrun Urpegui

11-24/POR-00148. Galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako zentroetako irisgarritasun arazoei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako zentroetako irisgarritasun arazoei buruzkoa

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zer plan darabil gogoan Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako zentroek profesionalen falta dela-eta dauzkaten irisgarritasun arazoak konpontzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00150. Galdera, Abiadura Handiko Trenari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Abiadura Handiko Trenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer data darabil gogon AHTa errealitate bat izan dadin gure autonomia-erkidegoan eta ez gaitezen gelditu Espainia gainontzeko lurraldeen aldean atzean?

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00151. Galdera, amnistiari buruzko azalpen faltari buruzkoa*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, amnistiari buruzko azalpen faltari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak apirilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafar guztien lehendakariak, Senatura agertu ez denez, zer dela-eta ukatu die nafarrei amnistiari buruzko azalpenak ematea?

Iruñean, 2024ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-24/POR-00152. Galdera, prestazio handiko trenaren obren garapenari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, prestazio handiko trenaren obren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2024ko apirilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du prestazio handiko trenaren obren garapena dela-eta?

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00153. Galdera, Estatuan 2024rako aurrekontu orokorrik ez izateak Nafarroarentzat izanen dituen ondorioei buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Estatuan 2024rako aurrekontu orokorrik ez izateak Nafarroarentzat izanen dituen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak 2024rako aurrekontu orokorrik izanen ez duela-eta, zer balorazio egiten du Lehendakariak Nafarroan izanen diren ondorioei buruz?

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

11-24/POR-00154. Galdera, Elikatearen legeak Nafarroan duen aplikazioari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PEREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Elikatearen legeak Nafarroan duen aplikazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2024ko apirilaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Elikatearen Legeak Nafarroan duen aplikazioari buruz?

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko apirilaren 25eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias